

EBAZPENA, 2020KO EKAINAREN 26KOA, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, UPV/EHUKO LANPOSTU BAT IZENDAPEN ASKEAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDI PUBLIKOA EGITEKO DENA.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lanpostu bat betetzeko beharra izanik, Gerentzia honek ebatzi du iragartzea eranskinean zehazten den lanpostua izendapen askearen bidez beteko dela. Eta halaxe egin du, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko ebazpenaz eskuordetu zaizkion aginpideez baliatuz (2017ko otsailaren 3ko EHAA-n argitaratutako ebazpena, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko dena), eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legea adierazitakoaz bat etorritik (1989 uztailaren 28ko EHAA).

OINARRIAK

Lehenengoa.- Eranskinean zehazten diren baldintzak betetzen dituzten funtzionarioek eskatu ahal izango dute ebazpena honen bidez deialdira ateratzen den lanpostua.

Bigarrena.- Eskaearak aurkezteko epea 15 eguneko izango da, deialdia euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Eskabideak Gerenteari zuzendu beharko zaizkio eta EHUKo Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira honako tokietan: Errektoregoko eraikinean, Leioako Campusa (Bizkaia); Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzan (Ignacio M^a Barriola eraikina, Elhuyar Plaza, 1.-Donostia); Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Izardui komandantea, 2.- Gasteiz); edo EHUK ikastegietan dituen erregistro orokorretan emandako ebazpenean dago zehaztuta, ikus 2012ko ekainaren 18ko EHAA; Interneteko helbide honetan ere ikus daiteke: http://www.ehu.es/erregistro_bulegoak.html) Edozelan ere, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 16.4 artikuluan adierazten dituen moduren batean ere aurkeztu ahal izango dira dokumentuak.

Eskariak aurkezteko epea amaitzen denean lehiakideek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

Hirugarrena.- 1.- Eskatzaileek instantzian azaldu behar izango dute UPV/EHUKo funtzionarioak direla eta idazkiarekin batera, era berean, curriculum vitae aurkeztu beharko dute, bertan ondoko hauek adieraziz:

- a) Titulu akademikoak.
- b) Ordura arte bete dituen lanpostuak, bai administrazio publikoan, bai enpresa pribatuan.
- c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, dakizkien hizkuntzak eta, oro har, eskatzaileak egoki ikusten dituen gainerako merezimendu guztiak.

2.-Interesatuak eskariarekin batera agiriak aurkeztu beharko dituzte, bete beharreko baldintzen eta alegatutako merezimenduen frogak gisa. Era berean, aipagarri iruditzen zaizkien argitalpen, txosten eta bestelako dokumentuak erantsi ahal izango dituzte.

Laugarrena: Deialdi honen ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena: bazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean dagokion Administrazio Auzietako Epaitegian; horretarako bi hilabete egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasita. Hori guztia, Unibertsitateko estatutuaren 160. artikuluan, urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2020ko ekainaren 26an

Gerentea

MIREN LOREA Firmado digitalmente por
BILBAO ARTECHE MIREN LOREA BILBAO
- 30573996G ARTECHE - 30573996G
Fecha: 2020.06.26
13:41:28 +02'00'

Miren Lorea Bilbao Arteche

I. ERANSKINA

- Izena: Administrazio burua
- Erreferentzia: F 1162
- Eskala: Gestio Teknikaria
- Taldea: A
- Zenbatgarrena: 5
- Maila: 26
- Lanaldia: Arautua
- Hizkuntza eskakizuna: 3; derrigortasun data:
- Langunea: BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA
- Campusa: BIZKAIA
- Betebehar espezifikoak:

- Lanpostua betetzeko baldintzak:

1.- EHUko karrerako funtzionarioa izatea, A taldekoa, Gestio Teknikaria eskalakoa, eta jardunean edo zerbitzu berezietan egotea unibertsitatean, Une honetan beste administrazio publikoren baten zerbitzura dauden EHUko karrerako funtzionarioak ere aurkeztu ahal izango dira lehiaketara, bai eta derrigorrezko edo borondatezko eszedentzian daudenak ere, baldin eta egoera horretarako ezarrita dagoen gutxieneko denbora bete badute. Modu honetan langileok jarduneko zerbitzura itzuliko lirateke.